

Maite Larburu abeslari eta aktorearen benetako bizipenak oinarri hartuta, XX. mendeko eta egungo diasporaren arteko elkarrizketa sortzea du helburu MUNDU BAT INGURUAN, antzerkia eta musika bateratzen dituen pieza eszenikoak.

XX mendean asko izan ziren Euskal Herria utzita, kanpora joan zirenak. Gehienak, ziurrenik, egoera sozio ekonomikoak behartuta egin zuten alde. Izan ziren, ordea, gure GIZONAREN antzera, gogoaren bulkadak jota esperientzia berri bat probatzera joan zirenak. Bera Ameriketara joan zen arrantxo batera lan egitera, ez “yes ez no” esaten ez zekiela. MAITE LARBURU, aldiz, Amsterdameko kontserbatoriora abiatu zen pare bat kurtso egitera eta azkenean, hamasei urte eman zituen bertan. Eta gure neska GAZTEA Ingalaterrara doa ikasketak jarraitzera. Hiru hilabete bertan eman ondoren, denbora luzerako maleta egitera etorri da, etxekoei agur esatera. Ingelesa badaki. Badaki ere, agur hori ez dela agur kilometrikoa izango, teknologiari esker han bizi arren, hemen ere izango delako aldi berean, zilbor birtualari etengabe lotuta.

Euskal mundutarren hiru esperientzia soil dira, beste hamaika euskaldunen esperientziaren isla.